

Ezpalak

JON TORNER

Joxemiel Barandiarani buruzko museoa zabaldu dute Ataunen

JOXEMIEL BARANDIARAN (Ataun, 1889-1991) antropologo eta etnografoaren bizitza eta lanak biltzen dituen museoa zabaldu dute Ataungo (Gipuzkoa) San Gregorio auzoko Larruntza errotan. Museoa osatzen duten bi eraikinen barruan testuak, argazkiak, bideoak eta indusketetako piezak daude besteak beste erakusgai. Museoa Gipuzkoako Parketxe Sarearen barruan sartu denez, bertako arduradunek kudeatuko dute.

Uztailaren 17an egingo da Aritzatxu Rock Free jaialdia



HAMABOST taldek parte hartuko dute Bermeoko Aritzatxu Rock Free jaialdian: Capsula, Dictadura, Los Frenos, Los Steaks, La Urss, Lobo Eléctrico (argazkian, taldeko abeslaria), Trigger Travis, Elfo Negro, El Desván del Macho... Uztailaren 17ko kontzertuak arratsaldeko ordubetetan hasiko dira. Kontzertuetarako sarrera eta kanpatzeko

lekua doakoak izango dira. (www.aritzatxurock.com/)

“Tasio 25 urte” erakusketa jasoko du irailaren 26ra arte Uharte Buldain Fundazioak. Iaz bete zen Montxo Armendarizen filmaren 25. urteurrena. Grabazio uneak islatzen dituzten dozenaka argazki, panel informatiboak eta gidoiaren zirriborroak bildu dituzte erakusketan, beste hainbat objektuekin batera.



Mikel Urmeneta marrazkilari eta sormen-lan zuzendariak eta Javier Agirresarobe argazki-zuzendariak Euskaldun Unibertsalaren 2009ko saria jaso dute, Euskal Herriaren irudi ona kanpoan zabaltzen laguntzegaiaik.

Ron Carter

1960ko hamarkadan Miles Davisen boskoteko kide izan zenak jasoko du Donostiako Jazzaldiaren saria. Jazzaren munduan eza-



guna da Carter, hainbat diskotan kolaborazioak egiten baititu. Donostiako Jazzaldian ere emango du kontzertua. Jazzaldia uztailaren 21etik 25era egingo da.

● **Maite Agirre antzerki zuzendari eta aktoreak Zazpika aldizkarian:** «Teatroa beti dago krisian, baina beti hor dago. Imajinatzen duzu erlijioak desagertzea, erri-tu horiek desagertzea? Ezinezkoa, ezta? Bada teatroa beste erritu bat da, aurrez aurre egiten dena. Kolektibitateak bildu beharra daukate, biltzea bera erritu bat da. (...) Gure ikuskizunetan jendearen parte hartzea handitzen ari denez, harreman horrek poz handiak ematen dizkit. (...) [Donostiako Antzerki Azoka gehiagorik ez egitea erabaki zutenean] profesionalak zur eta lur geratu ginen. Presio pixka bat egin genuen, eta aurretik berritua egitea erabaki zen. Baina hain dira kapritxosoak erabakiak... Orain bai, orain ez. Susmoa daukat Tabakaleraren kontuan ere horrelako zerbait egon ez ote den».

● **Lander Garro idazleak Ortzadar gehigarrian:** «Klase soziala ez da literaturan maiz agertzen den kontua. Agian idazleok posmodernotasunak eta halako zama ideologikoei mugatuta idazten dugu. Zaila da kate horretatik askatzea. Liburuaren ardatza da Paul Oliveira, eta nor den hobe ulertzen laguntzen digu bere ingurunea agertzeak. (...) Gurean liburu txar asko argitaratzen dela, ez idazleak txarrak direlako, idazleek korrika eta presaka idazten dutelako baizik, angustiak jota».

● **Egoitz Andonegi Aiumeen Basoa taldeko baxu jotzaileak Berrian:** «Jendeak galdetu digu hizkuntza ez ulertuta zerbait galduko ote duen. Nire iritziz, absurdo samarra da letrak ez ulertzeagatik musikarekin disfrutatu ezin denik pentsatzea».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php